Arartekoaren 2018IR-1449-16 Ebazpena, 2018ko urtarrilaren 9koa. Horren bidez, Oiartzungo Udalari iradoki genion beharrezkoak ziren neurriak har zitzan, ostalaritza establezimendu batek izan zitzakeen irregulartasunek aldamenean bizi ziren pertsonei kalterik ez eragiteko.

Aurrekariak

Oiartzungo herritar batzuek kexa bat jarri dute Arartekoan, eta, horren bidez, salatu dute udalak ez duela esku hartu zenbait ostalaritza establezimenduk ateratako zaratak etengabe eragiten dizkien eragozpenei lotuta. Bereziki nabarmendu dute plaza publiko batean kokatutako Amazkar tabernak ateratako zaratak eragozpen handiak dakarzkiela.

Kexagileen esanetan, lokalak isolamendu akustiko urria du han egindako jarduerak aintzat hartuta, eta horrexek eragiten ditu zaratak. Horrez gain, lokalean erabilitako soinu-ekipamenduek ez dute nahitaezkoa den mugagailua.

Oiartzungo Udalean hainbat erreklamazio aurkeztu dituztela diote interesdunek, baina orain arte udalak ez diela proposatu behar bezalako irtenbiderik duten arazo larria konpontzeko.

Arartekoak erreklamazioa izapidetzeko onartu du eta izapide ugari egin ditu Oiartzungo Udala tartean zela, aipatutako establezimenduaren administrazio- eta hirigintza-egoeraren berri izateko.

Gogoetak

Egindako izapideei erantzute aldera, Oiartzungo Udalak jarraian jasotako udal txostena bidali digu.

> *" Elizalde auzoan kokatzen den Amazkar tabernaren inguruan honako informazioa eskatu du Arartekoak Kontzejuerreka kaleko 2 zenbakiko jabe-komunitateak egindako kexa-idatzia izapidetze aldera:*

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

1. *Jarduerak sailkatutako jardueraren derrigorrezko lizentzia duen edo sailkatutako jardueraren aurretiazko jakinarazpenaren izapidea egikaritu duen, otsailaren 27k 3/1998 Legearen, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzkoaren, 55. Artikulua era hurrengoak betez.*
2. *Funtzionamendu egokia bermatzeko neurri zuzentzaileak betetzen dituen, egindako ikuskaritza bisita guztien txostenen kopia eta lokalak sortutako zaratengatiko eragozpenengatik egindako neurketa akustikoen kopia. Zehazki lokalak duen isolamendu akustiko eta ukitutako etxebizitzan erregistratutako zarata mailak.*
3. *Soinu-ekipoek derrigorrezko baimena duten eta guztiak behar bezala mugatuta daudeneko, hala badagokio, erregistro sonografiko bat jartzeko aukera aztertu den.*
4. *Jardueraren titularraren aurka zehapen-espedienterik hasita dagoen.*
5. *Era berean, eskertuko genizuke kexaren xedearekin zerikusia duen edozein inguruabarri buruz informatzea, gure esku-hartzerako interesgarria izan badaiteke.*

Erantzuna:

1. *JARDUERA BAIMENARI BURUZ*
   Lokalak 1979ko jarduera baimena dauka. 1999 urtean ate bikoitza jartzeko, isolamendua egiteko, arotzeria aldatzeko , aireztapena egiteko eta elektrizitate lanak egiteko obra Baimena eman zitzaion baina ez zen jarduera baimena berriz tramitatu.

2. *JARDUERAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZ*
   Ez da ikuskatzerik egon .
   Lokalaren isolamenduari buruz ez dago daturik.

3. *MUSIKA APARATUEI BURUZ*
   Musika aparatuak ez dauka mugatzailerik , Espediente batean ikusi dudanez 1994-2001urteetan mugatzailea izan zuen aparatuak.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

4. ZEHAPEN EXPEDIENTEI BURUZ

Jardueraren titularraren aurka ez dira zigortzeko espedienterik ireki ez itxiera ordutegia ez errespetatzeagatik ezta beste arrazoiengatik.

2015-2016 bitartean udaltzaingoak Amazkar tabernako zarata dela eta jasotako kexak (telefono deiak).

2015 11

2016 5

Guztira 16 kexa udaltzaingoan.

Kexatan zarata handia aipatzen da eta bertaratzen diren udaltzainek baieztatzen dute. Kexa askotan atea irekita dagoela esaten da.

Kexa askotan ordutegia ez betetzea dagoela baieztatu daiteke.

PROPOSAMENA:

LEHENENGOA: Arartekoari txosten honen kopia bidaltzea.

BIGARRENA: Ikusirik 1999. Urtean ekarritako proiektuaren obrak egin zirela eta ondoren ez dagoela inolako justifikaziorik ez eta jarduera baimenaren berritze espedienterik , ekainaren 11ko 171/1985Dekretoa, Etxebizitzatarako Hiri-lurretan jartzekoak diren Ekintzabide Nekagarri, Osasunkaitz, kaltegarri eta Arriskutsuen erabili Beharrezko Teknikazko Arauak betetzen dituela justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, jakinda 2. Kategoriako taberna jarduera baimena duela. Lan hauek aurkezteko epea hilabeteko epea emango zaio.

HIRUGARRENA: Ikusirik ez dagoela tabernaren isolamenduaren buruzko daturik isolamendua betetzen dela justifikatzeko soinu neurketa aurkeztu beharko da,non araudia betetzen duen ziurtatzen den, soinu proba hau ENAC-ek egiaztatutako enpresa batek egingo du, ondoren beharrezko hartuko dira, erregistro sonografikoa duen mugatzailea eta abar, harretarako beharrezkoa den baimena eskatuz. Lan honek hilabeteko epea emango zaio."

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat eginez, honako iradokizun hau egiten zaio Oiartzungo Udalari:

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Iradokizuna

Arartekoaren ustez, ingurumenari buruzko araudian ezarritako kontrol- eta ikuskaritza-funtzioak betetzen ari da Oiartzungo Udala. Beraz, eskatutako proiektuak aurkeztu bezain laster egiaztatu ahal izango du aztergai dugun jarduerak beharrezkoak diren baldintza tekniko eta segurtasunezkoak betetzen dituen. Txosten horien emaitzen arabera, jarduerak behar bezala funtzionatzen duela bermatze aldera dagozkion erabakiak hartzeko moduan egongo da udala.

Hala ere, bien bitartean, aipatutako jarduerak ateratako zaratak aldamenean bizi diren pertsonei eragin liezazkiekeen eragozpenak saiheste aldera, Arartekoaren iritziz, Oiartzungo Udalak, *2016ko urtarrilaren 7ko EHAAn argitaratu zen Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerei buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen* 64. artikuluan jasotakoari jarraiki, dagozkion behin behineko edo prebentziozko neurriak hartzeko aukera aztertu beharko luke, harik eta eskatutako proiektuak aurkeztu arte.

Horrez gain, Arartekoak azpimarratzen du halabeharrez jarri behar direla mugagailuak soinu-ekipamenduetan, derrigorrezko neurria baita, eta beraz, eskatutako proiektuak eskatu aurretik ere bete behar dela eginbehar hori.

Azkenik, Oiartzungo Udalak ziurtatu beharko du aipatutako establezimenduak legeak ezarritako ordutegia errespetatzen duela eta lokalera sartzeko ateak itxita dituela.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus